

5


ESKOLAKO IDATZIAK

A Haurra eskolara joan ez izana azaltzea

B Eskaera irakasleari

A

Haurra eskolara joan ez izana azaltzea



2003ko urtarrilaren 7an

Gaur goizean Mikelek dentistarenera joan behar du. Eskolara 11etan joango naiz bila. Arratsaldean joango da eskolara.

Ane Elejalde
(Mikelen ama)

1

A



Haurra eskolara joan ez izana azaltzea

2

Aramaion, 2003ko urtarrilaren 12an

Aurreko aste osoan Ane ez da eskolara joan barizela eduki duelako. Medikuaren gomendioa izan zen ez joatea. Astean egindako eskolako lanak ematea eskertuko nizuke, atzeratutakoa begiratzeko.

Xabier Aranzabal



1

Andereño Rosa:

Kirola egiteko eramaten duen poltsa galdu du Iratik, zapa-tilak eta txandala ere bai. Esan dit eskolan lapurtu diotela, ez baitzuen eskolatik atera. Solfeoa begiratu dugu ea han ote zegoen, baina ez dugu aurkitu. Eskertuko nizuke eskolan begiratuko bazenu eta ea norbaitek ezer dakien galde-
tuko bazenu.

Mila esker

Elena Garai

